



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



2024

---

# Kultura gizarte- bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa  
eta lan-esperientzien  
identifikazioa

---



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

- 1. Aurkezpena
- 2. Gizarte-bazterketa: kontzeptua eta kuantifikazioa
  - 2.1. Definizioa eta dimentsioak  
Gizarte-bazterketaren datuak Euskadin
  - 2.2. Kontzeptuak argituz: bazterketa, bereizketa, inklusioa, integrazioa... eta gizarte-kohesioa
- 3. Kulturarako begirada gizarte-bazterketatik
  - 3.1 Kultura arazo gisa... eta soluzio gisa
  - 3.2 Alerta-seinaleak parte-hartze kulturalaren / parte-hartze kulturalik ezaren bitartez
  - 3.3 Nola sartu kultura bazterketaren eredu teorikoan?  
Kulturaren potentzial espezifikoaren ebidentzia empirikoa gizarte-bazterketari dagokionez  
Ebidentzia empirikoaren irakurketa kritikoa
- 4. Lan-eremuaren klabeak
  - Pertsonetan eta sailen arteko lankidetzan oinarritutako hurbilketa
  - Proiektuak eta neurriak fokalizazioaren eta unibertsaltasunaren artean
  - Hirugarren sektorearen garrantzia
  - Administrazio publikoaren rol esanguratsua
  - Gizarte-inklusioa gizarte-berrikuntzako eremu gisa
  - Malgutasuna eta hurbiltasuna: egokitzeko gaitasuna, inpaktu-potentziala
  - Figura eta konpetentzia profesional espezifikoak
  - Artea bitarteko gisa eta prozesu gisa
- 5. Laburpena eta ondorioa
- Erreferentziazko bibliografia

**Laguntza teknikoa:**  
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

**Itzulpena:**  
LETE ITZULPENAK-  
TRADUCCIONES, SL

**Diseinua eta maketazioa:**  
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL  
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava  
T. 945 016 947  
[kulturabehatokia@euskadi.eus](mailto:kulturabehatokia@euskadi.eus)

# 1. Aurkezpena

Kultura berez da errealitate sozialaren zati eta, hala denez, fenomeno berek hartzen dute eraginpean. Europar Batasunaren estrategia sozialetan gaur egun gehien nabarmentzen direnen artean, gizarte-bazterketa dugu haietako bat. Parte-hartze kulturaren eremuan bertan badira arazoi sozialak direla-eta baztertutako pertsonak. Parte-hartze kulturalaren desparekotasunak ez dira inongo berritasun zentzu horretan. Aitzitik, ikerketa soziologikorako eremu zabal bat izan dira.

Hori gorabehera, azkenaldian soilik ari da begirada aldatzen kultura “arazo gisa” ikustetik kultura “soluzio gisa” ikustera. Gizarte-bazterketako egoerak gainditzen laguntzeko gaitasuna du parte-hartze kulturalak eta, horrenbestez, gizartearen funtzionamendua hobetzen eta gizartearen beraren gizarte-ongizateko mailak hobetzen laguntzeko. Eskala txikian dauden proiektu guztiak gorabehera, oraindik ere

gizarte-bazterketa osatzen duten egoeren ugaritasun handian oinarrituko diren politiken eta estrategia orokorren hutsunea dago.

Norabide horretan aurrera egiteak gizarte-bazterketa bera eta parte-hartze kulturala horretan nola sartzten den ulertzea dakar, eta diagnostikotik (desparekotasun kulturalen eta haien faktoreen azterketa) proposamenera (kulturaren onura sozialen identifikazioa eta ekintzen diseinua) igarota egitea dakar, halaber.

Parte-hartze kulturalen eta gizarte-bazterketaren arteko uztartze hori zein den deskribatu nahi du txosten honek. Horrela, Kulturaren Euskal Behatokiaren **kultura eta osasuneko** eta kultura eta hezkuntzako azkenaldiko azterlanak (2022koa lehenengoa eta 2024koa, edizio-fasean, bigarrena) osatzen ditu azterlan honek. Pentsatzekoa denez, **eskubide kulturalen**

barruan sartzten da bete-betean gaia, zalantzarik gabe (KEB, 2019).

3 bloke nagusitan egituratzen da txostena:

1. Gizarte-bazterketara kontzeptualki eta enpirikoki hurbiltzeko lehen bloke bat, zertaz eta nortaz hitz egiten den jakiteko.
2. Kultura gizarte-bazterketaren testuinguruan nola sartzten den erakutsiko duen bigarren bloke bat, parte-hartze kulturalako arazoaren fokua parte-hartze horrek dituen onuretara mugituta.
3. Kulturaren eta gizarte-bazterketaren arteko intersekzioa osatzen duten lan-eremuaren gakoak azaltzen dituen hirugarren bloke bat, proiektuak esparru horretan nolakoak diren eta ekintza berrien diseinuan aurrera nola egin hobeto ulertuz.

---

## **Kultura gizarte-bazterketaren aurrean**

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

---

Azkenik, laburpen atal txiki batek ixten du kultura gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko faktore bereizgarri gisa aitortzea sustatzeko pentsatutako txostena.

Kulturak esku-hartze publikoaren beste esparru batzuekin (hala nola gizarte-politikak, hezkuntza-politikak edo osasun-politikak) duen harremana nabarmentzeko azterlan hauek betiere kulturak hobekuntza pertsonal eta komunitarioari egiten dion ekarpenaren konbikzioan oinarritzen dira. Europako dokumentu estrategikoetan eta politikak diseinatzeko ebidentziak ematen dituzten azterlanetan bermatzen du bere begirada, kontzeptuzko oinarrietatik lan-eremu horretan aurrera egiten lagunduz. Gogoeta egin, kontzeptuak argitu eta ebidentziak eman nahi ditu, katedra ezartzeko edo judizioak egiteko asmorik gabe, kulturaren gaitasun emantzipatzailea gizarte inklusiboagoak eta berdinzaleagoak eraikitzeko ezinbesteko laguntza-tresna dela konbentzituruta.

## 2. Gizarte-bazterketa: kontzeptua eta kuantifikazioa

### 2.1. Definizioa eta dimentsioak

Kontzeptu multidimentsionala da gizarte-bazterketa. Hurbilketa posible ugari daudenez eta gizarte-kalteberatasuneko hainbat egoera gertatzen direnez, gizarte-bazterketaren kontzeptua oso erreminta baliagarria da lan-baldintzen eta gizartean parte hartzearen eremu zabal eta askotarikoari ekiteko.

Gizarte-bazterketaren kontzeptua aberastu egin da pobrezia eta gizarte-kalteberatasuneko beste egoera batzuen azterketan oinarrituta. Zabaldu egin da faktore estrukturalak edo bizitza indibidualen egoerak barnean sartzeraino. Pertsonen edo gizarte-kolektiboen gizartean erabateko parte-hartzea izatea eta arlo politiko,

laboral, ekonomiko, sozial edo kultureko eskubideak egikaritzea saihesten dieten prozesuen batuketaren baten emaitza bezala definitu daiteke. Horrenbestez, parte-hartzearen eta giza eskubideen ideia bazterketaren kontzeptuaren oinarrian dago.

Esparru horretan kokatzen da [NBE \(2016\)](#): gizarte-bazterketari buruz dauden definizioen aniztasunean gizartean parte hartzen ez dela agertzen da gai nagusi gisa definizio guztietan ere. Parte-hartze falta hori dimentsio multzo zabal batean gauzatu daiteke, hala nola ekonomikoan edo laborean, politikan edo kulturaren, eta horretara daraman egoera bat zein prozesu bat da.

Europar lehenengo dokumentuetatik ulertu da gizarte-bazterketa pobrezia, oinarriko konpetentzien faltak eta ikasteko aukeren faltak markatutako prozesu bat bezala, edo diskriminazio baten emaitza bezala ([Europako Kontseilua, 2004](#)).

Kontzeptuaren multidimentsionaltasuna ulertzen laguntzen duten alderdiak jasotzen dira definizio horretan: pobreziatik aukerataraino, konpetentziak barnean hartuta eta diskriminazioak ere ahaztu gabe. Sustraiak, hortaz, desberdina izan daiteke, baita faktore horietako hainbat konbinatuta ere. Horregatik, bazterketaren aurka borrokatzeko bitartekoak ere askotarikoak dira, eta haietako batzuk definizioarekin berarekin daude lotuta, hala nola lan-okupazioa, prestakuntza eta kapital soziala.

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

Bazterketa estu lotuta dago pobreziarekin, baina ez harekin soilik. Horregatik, gizarte-inklusihoa ez da soilik, edo beti, baliabide ekonomikoak eskainiz lortzen. Haatik, kontuan hartu behar da pobrezia eta desparekotasun ekonomikoa direla faktore nagusiak, bitarteko materialen falta estu lotuta baitago bizitza publikoan parte-hartzearekin ([NBE, 2016](#); [NBE, 2018](#)).

Bazterketa-egoerekin gertatzen den bezala, haien kausak ere askotarikoak dira. Begirada global batekin ikusita, inpaktu handiko zenbait aldaketa estruktural gertatu dira azken hamarkadetan, hala nola:

- Lan-merkatuan sartzeko baldintzak.
- Biztanleriaren bizi-itxaropena handitu izana eta, horrenbestez, osasun-zerbitzuen eskaria.
- Migrazio-mugimendu globalen ondoriozko aldaketa demografikoak.
- Aldaketak familia-egituretan.
- Diskriminazioa sexu- eta genero-arrazoiengatik.

- Etxebizitza lortzeko zailtasuna.
- Landa-despopulatze gero eta handiagoa eta hirietarako migrazioaren igoera.
- IKTen eta beste teknologia batzuen inpaktua.

Bere izaera multidimentsionalean sakonduz, eta EAEn eta Estatu espainolean horren inguruan egindako azterketaren erreferenteen ildoari jarraikiz ([FOESSA<sup>1</sup>](#)), gizarte-bazterketak, dimentsio ekonomikoaz eta materialaz aparte (pobrezia soil-solik) honako hauek inplikatzeko dituela nabarmentzen du:

- Herritartasun politiko eta sozialaren klabeen gauzatutako dimentsio bat (non “herritartasun kulturalaren” dimentsioa sartu ahalko den, gaur egun azterlanetan sartzen ari ez badira ere).
- Gizarte-harremanei lotutako dimentsio bat (non parte-hartze kulturala funtsezko faktore bat den, gaur egun horrela kontuan hartzen ez bada ere).

FOESSAren azterlanek<sup>2</sup>, adibidez, 3 ardatzen artean banatzen diren 8 dimentsiori dagozkien 37 adierazleri ere erantzuten diete. Barnean hartutako aldagaien hautatutako sorta txiki bat aurkitu daiteke 1. taulan gizarte-bazterketaren adierazpen gisa.

1. taula. Ardatz bakoitzari lotutako itemen eredu

### Zertaz ari gara gizarte-bazterketaz ari garenean?

#### Ardatz ekonomikoa

Enplegua eta kontsumoa

- Langabezia
- Enplegu irregularra
- Lan-ezegonkortasuna
- Diru-sarreraren kopurua
- Zorrak metatzea
- Etxeko ekipamendua

1 Azken txostena: Ayala L, Laparra M, & Gregorio C (koord.) (2022). Gizarte-kohesioaren bilakaera eta Covid 19aren ondorioak Espainian. Azterlanen bilduma, 50, FOESSA Fundazioa – Cáritas Española Editores, Madril. [Online eskuragarri.](#)

2 Bere webgune-aplikazioaren bidez aztertu daiteke dagokion eredu: <https://www.foessa.es/encuestas-sobre-integracion/exclusion-social/>

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

### Ardatz politikoa eta herritartasuna

Parte-hartze politikoa, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna

- Boto-eskubidea egikaritzea
- Asoziazionismoa
- Ikasketa-maila
- Infraetxe-egoerak
- Ingurune degradatuak
- Gehiegizko gastua etxebizitzan
- Estaldura sanitarioa
- Osasun-egoera
- Asistentzia medikoa
- Arazo ekonomikoak botiketarako

### Harremanen ardatz soziala

Gatazka sozialak eta isolamendu soziala

- Familia barruko harreman txarrak
- Hainbat substantziekiko, jokoarekiko... adikzio-arazoak
- 18 urte baino gutxiagoko aita/ama
- Aurrekari penalak
- Familia-laguntzaren falta
- Pertsona isolatuak (espetxeak, ospitaleak, psikiatrikoak, adingabeen zentroak, emakumeenak...)

Iturria: geuk egina FOESSAren eredutik abiatuta

lido horretan, “zertaz hitz egiten den” aldagaiari erantzunez, posible da “nortaz hitz egiten den” aldagaiari erantzutea.

Kontzeptua multidimentsionala denez, bazterketaren subjektua oso heterogeneoa da definizioz. Iragankorrak izan daitezkeen egoeran badaude ere, bazterketa errealitate dinamiko bihurtuz bazterketa hori batzuetan esperimendatzen duten eta beste batzuetan esperimendatzen ez duten zikloak izaten dituzten pertsonekin, patroia jakin batzuk daude betiere.

Adierazitako aldagaiek (osasuna, lana, diru-sarrerak, prestakuntza, etxebizitza, familia...) forma jakin batzuk hartzen dituzte, eragozgarriak, kolektibo jakin batzuetarako. Izan ere, pertsonak aldagai horietako bat baino gehiagoren eraginpean egoten dira, eta aldagai horiek intersekzio espezifikoak osatzen dituzte baztertutako profilen dibertsitate zabalari forma emateko. Zorroztasunez adierazteko asmorik gabe, baina dibertsitatearen berri modu gutxi-asko zabalean emanda,

honako hauekin daukate zerikusia bazterketa handieneko kasuek, adibidez:

- lanik gabeko pertsonak;
- diru-sarrerarik gabeko edo diru-sarrera txikiko pertsonak;
- segurtasuneko gizarte-sarerik gabeko pertsonak (familia, lagunak...);
- ikasketarik gabeko edo prestakuntza-maila txikiko pertsonak;
- etorkinak, errefuxiatuak eta minoriak;
- ezintasun mota desberdinak (fisikoak, sentsozialak, intelektualak edo mentalak) dituzten pertsonak;
- adikzioak dituzten pertsonak;
- askatasunaz gabetutako pertsonak (presondegietan, adingabeen zentroetan...);
- kalteberatasun-egoeran dauden genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak;
- etxerik gabeko pertsonak;
- adineko pertsonak egoitzetan, eguneko zentroetan... osasun-arazoekin edota nahi ez den bakardade-egoeran;
- LGTBI pertsonak.

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

Egoeren aukera zabal hori aitortzeko zentzua hartzen du “Inor atzean utzi gabe” leloak Garapen Jasangarrirako Helburuen eta 2030 Agendaren esparruan, agendaren proposamena arrisku-kolektiboak honako faktore hauei jarraikiz kokatzea delarik ([NBE, 2022](#)):

2. taula. Gizarte-bazterketa sortzeko funtsezko faktoreak

Faktorea*	Esparrua	Kontuan hartu beharreko elementuak
<b>DISKRIMINAZIOA</b>	Hautatutako edo atxikitako identitateak	2030 Agendan espezifikatutako gizarte-taldeak, sexuari, etniari, migrazio-estatusari, desgaitasunari eta abarri buruzkoak.
<b>GEOGRAFIA</b>	Lurraldeko kokalekua, ingurumen-degradazioa, garraioak eta teknologia barne	Mugikortasuna, azpiegituretarako eta teknologietarako sarbidea.
<b>KALTEBERATASUNA TXOKEAREN AURREAN</b>	Gatazka, klima edo gizarte-ingurunea	Hondamendi naturalei, indarkeriari, krimenari, gatazkari edo beste txoke sozial edo ekonomikoei aurre egin behar izateko arriskua duten leku edo populazioak.
<b>GOBERNANTZA</b>	Legeak, politikak, erakundeak, herritarren parte-hartzea...	Legeen, politiken, aurrekontuen, zergen eta abarren inpaktu berezia. Erabaki-prozesuetan eta gune zibikoan eragiteko gaitasuna. Internetarako, informaziorako eta datuetarako sarbidea.
<b>ESTATUS SOZIOEKONOMIKOA</b>	Pobrezia multidimentsionala, zerbitzu publikoak, oinarrizko azpiegiturak...	Giza Garapeneko Indizea, Gini Kofizienteak, diru-sarreraren arabera GJHak, enplegu kaltebera edo informala...

\*Intersekzioak eragiten dituzten faktoreak askotarikoak izan daitezke, eta bazterketa-arriskua indartzea dakar horrek. Iturria: [NBEtik \(2022\)](#) egokitua.




## Gizarte-bazterketaren datuak Euskadin

Pobreziaren gaineko begirada multidimentsional hori ongi jasota dago Euskadirako FOESSA txostenetan<sup>3</sup>.

Erabateko integrazio-egoera, erabilitako 37 adierazleetako bakar batek ere eraginpean hartzen ez duen pertsoneri dagokie, eta integrazio prekarioko egoera, aldiz, adierazle batek edo batek baino gehiagok eraginpean hartutako kasuekin du zerikusia, nahiz eta horrek ez duen zertan sozializazioko gune integratu batetik gehiegi urruntzerik ekarriko.

Bazterketa moderatu edo larriko egoerak integrazioko gune sozialetik kanpo dauden kasuei dagozkie. Egoera moderatutzat hartzen dira esklusio-potentzial oso handiko faktoreen afektazioa erakusten duten egoerak, baina betiere metatu gabe. Aitzitik, egoera larria da esklusio-potentzialeko faktoreen metaketa gertatzen denean.

1. grafikoa. Euskadiko biztanleria bere gizarte-integrazioko mailaren arabera. 2013-2021eko bilakaera



Iturria: Geuk egina FOESSA webgune-aplikazioaren datuekin-

2021ean, FOESSAren datuen arabera, Euskadiko biztanleriaren seirena (% 16,3) bazterkeria-egoeran dago, eta % 26,1ek integrazio-egoera prekarioa bizi du. 2013arekin alderatuta, biztanleriaren sektore batek bazterkeria moderatu edo larriko egoeran jarraitzen duen aldi berean, biztanleria erabat integratuak hoge

ehuneko-puntuiko igoera esanguratsua izan du, % 57,7koa izateraino.


Fenomenoa hobeto ulertzeko, interesgarria da multidimentsionaltasunaren osagaiei zein egoeren metaketa-mailari dagokionez.

<sup>3</sup> Honako esteka honetan kontsultatu daiteke "Euskadiko bazterketari eta gizarte-garapenari buruzko txostena: Integrazioari eta gizarte-beharrei buruzko inkestaren emaitzak 2021 (2022): <https://www.foessa.es/main-files/uploads/sites/16/2022/02/Informes-Territoriales-2022.-EUSKADI.pdf>

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean


Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

2. grafikoa. Gizarte-bazterketaren osaera: Euskadiko biztanleria ardatzeko bere afektazioaren arabera eta gizarte-bazterketaren dimentsioa. 2021.



Iturria: Geuk egina [FOESSA webgune-aplikazioaren](#) datuekin.

3. grafikoa. Bazterketa-egoeren metagarritasuna: Euskadiko biztanleria dimentsio batean baino gehiagotan gizarte-bazterketako arazoengatik bere afektazioaren arabera (%).




Iturria: Geuk egina [FOESSA webgune-aplikazioaren](#) datuekin.

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean


Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

4. grafikoa. Diru-sarrerak eta bazterketa: pobrezia-egoerek eta gizarte-bazterketak eraginpean hartutako biztanleriaren banaketa (%). 2021.



Iturria: geuk egina [Euskadi 2022rako FOESSA txostenaren](#) datuekin.

5. grafikoa. Pobzeziaren eta ongizaterik ezaren arriskuaren bilakaera. PGDI adierazleak. 1986-2022  
Familia-etxebizitzetan bizi direnak (%)



Iturria: geuk egina EUSTATEN datuekin (ESSDE 1986, PGDI 1996, 2000, 2004, 2008, 2012, 2016 eta 2020 eta GZEE-GBI 2014, 2018 eta 2022)

Modu interesgarrian, datu berek diru-sarrerak dituzten bazterketa-egoeren zein diru-sarrerarik gabeko inklusio-egoeren posibilitatea erakusten dute. Hori horrela, multidimentsionaltasuna gauzatuz, gizarte-bazterketaren ardatz ekonomikoaz haratago.

Antzeko begirada bat baina pobzeziaren eta ongizaterik ezaren adierazleak aztertuz eskaintzen du EUSTATEN 2022ko (GBI) [Gizarte Beharren Inkestak](#). Bertan ikusi daitekeenez, ongizaterik ezaren arriskuak zenbait gorabehera izan ditu azken bi hamarkadetan, biztanleriaren % 20 ingururen gaineko intzidentziarekin. 2022an, 483.000 pertsona ziren guztira.


## 2.2. Kontzeptuak argituz: bazterketa, bereizketa, inklusioa, integrazioa... eta gizarte-kohesioa

Literatura espezializatuan hainbat forma hartzen dituzte bazterketaren, integrazioaren, inklusioaren eta bereizketaren kontzeptuek. Horrela, 1. irudiak, terminologia espezifikoaz haratago, gizarte-kohesioari buruzko posibilitate guztiak erakusten ditu. Kontuan hartu behar da bazterketak eta bereizketak, batetik, eta inklusioak eta integrazioak, bestetik, bata bestearen ordeztzeko moduan erabiltzen direla eguneroko praktikan.

Horrela, antzua izan litekeen eztabaida terminologikoan sartu gabe, honako hau da garrantzitsua:

- Errealitate baztertzaila edo bereizle batetik beste errealitate inklusibo edo integratzaila batera igaro nahi da.
- Ezaugarri sozial edo pertsonalengatiko diskriminazioak gertatzen diren egoera

1. irudia. Bazterketaren, integrazioaren, inklusioaren eta bereizketaren irudikapen grafikoak.



batetik dibertsitate oro –desberdintasunek edo desparekotasunek sortutakoa dela ereberdintasunean tratatzen den egoera batera.

lido horretan, gizarte-bazterketaren kontzeptua estu lotuta dago gizarte-kohesioaren kontzeptuari. Dibertsitatea eta egungo desparekotasunak kudeatu behar dira gizarte bat eratzeke non

gizartearen beraren alderdi guztiak baldintza-berdintasunean diren haren zati. Zehazki, beren ongizatea lortzeko baliabideak eta gaitasunak dituztela ziurtatzeko.

Horrenbestez, pertsonen ongizatearekin du zerikusia gizarte-kohesioak. Arrazoi horregatik, bazterketa funtsezko elementua

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

da politika publiko orokorrenzat<sup>4</sup>. Horrela, gizarte-inklusioko prozesu bati egiten dio erreferentzia, prozesu horren bidez talde jakin batzuk gizartearen marjinetatik (parte-hartze politikoaren, sozialaren eta abarren marjinak) gizarte horien erdira ekartzen direlarik, parte-hartze hori eragozten edo zailtzen dituzten hesiak gaindituz, hala nola bizi-baldintza materialak, hezkuntza, abileziak eta gaitasunak, estatusa eta aitortza soziala...

Ikusi denez, egoerak eta bazterketa-prozesuak askotarikoak dira. Ildo horretan, errealitate multidimentsionala denez, kausa objektiboak deitutakoak gainditzen dituzten faktoreak dira, arrazoi ez-materialekin konbinatzen baitira: adibidez, pobrezia-klabearen, kontua ez da soilik dirua izatea edo ez izatea, edo, desgaitasun-klabearen, kontua ez da soilik defizit bat izatea. Hor daude, halaber, kontsiderazio sozial eta sinboliko guztiak, alderdi materialaz eta objektiboaz haratago, egoera bakoitzari lotuta.

Ikuspuntu ekonomiko batetik begiraturik, pobrezia-klabearen kontzeptuaren beraren zabaltasuna kontuan izan behar da: azkenaldiko hamarkadetan garrantzia irabazi duen kontzeptu bat "langile pobreena" (*working poors*) da. Pobrezia-klabearen figura (edo hobe esanda, gabetzearena edo gabeziarena) ez dagokio jada soilik diru-sarrerarik gabeko pertsona bati, eta gizarte-bazterketako arriskua pertsona edo etxeko unitate langileetan ere ageri da ([Suppa N., 2023](#)).

Hori horrela, gizarte-bazterketaren izaera zabal eta heterogeneoak eskatzen du begirada fokalizatu bat, kausa eta egoera berezi batzuk (kolektibo espezifikoentzat diseinatutako programak edo estrategiak) behar bezala aztertzea bideratutakoa, eta, horrez gain, baita begirada unibertsal bat ere, prebentzio-klabearen bideratuagoa (beren diseinuan askotariko egoeretara egokitutako ezaugarriak integratzen dituzten programa edo estrategia erkideak). Era berean, oro

har, gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeak bere zentzu osoa hartzen du gizarte osoa eta gizartearen funtzionamendua hobetzeko ongizate-klabearen eta gizarte-koheren-klabearen, eta ez soilik kolektibo espezifiko batzuen egoera hobetzeko.

<sup>4</sup> Horren, eta Europan izandako ibilbide historiko luzearen, erakusgarri da Europako Kontseiluaren 1994tik 1998ra arteko lehenengo proiektua, "The human dignity and social exclusion project" izenburu adierazgarriarekin. Pobrezia-klabearen eta koheren-klabearen lotutako proiektuak erabakigarriak izan dira halaber Europar Batasunaren beraren azkenaldiko estrategietan, inpaktu legal, politiko eta administratibo handiagoarekin Batasuneko estatu kideetan.

# 3. Kulturarako begirada gizarte-bazterketatik

## 3.1. Kultura arazo gisa... eta soluzio gisa

Hasteko, onartu beharra dago, eta hori ez da inolako berritasuna, kultura berez dela gizarte-bazterketako arlo bat.

Kultura-arloa ez da independentea gizarte-errealitate osoarekiko, eta, horrenbestez, desparekotasun-ardatzek ere zeharkatzen dute. Horrela erakusten dute parte-hartze kulturalaren datuek, hala nola Euskadirako ondorengo [3.2 atalean](#) aurkezten direnek. Kontuan izanda ere bazterketa larria inkesta gehienen radarretik kanpo dagoela (laginketan eta landa-lanean kokatu ezin diren profilak<sup>5</sup>), parte-hartze kulturala aldagai sozialek neurtzen dutela ikusi daiteke azterketan. Horrela, kasu askotan

parte-hartze kulturalik eza ez da erabaki libre bat, interferentziarik gabea. Horrenbestez, eskubide kulturalen urraketa bat dagoela ulertu daiteke kasu horietan.

Parte-hartze kulturean dauden desparekotasun horiek arazo bat dira, kulturak ez baitu efektu positiborik sortzeko gaitasuna parte hartzen duten pertsonentzat eta osotasun bat bezala ulertutako gizarte guztiarentzat ([3.3 atala](#), aurrerago). Baina kulturak berez, modu "naturalean", ez du onura sozialik sortzen modu banatu eta ekitatiboan. Kultura ezin da banandu existitzen den gizarte-ingurunetik, eta jarduera kulturala baino lehenagotik existitzen diren desparekotasun-ardatzek gurutzatzen dute ingurune hori.

Kulturak azken batean onurak modu ekitatiboan sortu ditzan, desparekotasunak eta kolektibo jakin batzuen gizarte-bazterketako arriskua abiapuntu gisa hartuko dituen lan bat behar da: dela parte-hartze espezifiko aukerak diseinatzeke, dela egungo aukerak birformulatzeko modu unibertsalean benetan irisgarriak (eta ez soilik formalki) izan daitezten.

Kultura gizarte-bazterketako egoerak gainditzeko palanka bat izatea nahi da, baina praktikan gertatzen dena zera da, kulturaren eremuan desparekotasunak ugaritu eta sakondu egiten direla. Horrenbestez, kulturak bere onurak behar bezala eman ditzan, egoera hori ezagutu behar da, kultura errealitate horretan nola sartzen den aztertu,

<sup>5</sup> EUROSTAT Europako estatistikako institutuak problematiko horri buruzko txosten bat editatu du azkenaldian. Lynn P eta Lyberg L (2022) "[Improving the measurement of poverty and social exclusion in Europe: reducing non-sampling errors](#)".

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

eta eraldaketarako egokiak diren ekintza eta estrategiak diseinatu.

Testuinguru horretan zentzua hartzen du kulturaren forma instituzionalizatueterako sarbidean lan egiteak (“kultura legitimatua” deitutakoa), baina baita ere parte-hartze aktibo eta espresiboko formetan (ez soilik “kontsumo” gisa ulertutako “sarbidea”) eta normalen kontuan hartzen diren eta publikoki babesten ez diren praktika kulturalen zabalduetako aitortzan.<sup>6</sup> Dimentsio horiek guztiek erronkak planteatzen dizkiote kulturari gizarte-inklusioa eta gizarte-kohesioa bultzatzeko nahi horren testuinguruan.

### 3.2. Alerta-seinaleak parte-hartze kulturalaren / parte-hartze kulturalik ezaren bitartez

#### Eskema kontzeptuala: parte-hartzeko moduen dibertsitatea, oztopoen dibertsitatea

Lehenik, gogorarazi behar da *desparekotasunak* daudela parte-hartze kulturalan eta ez soilik desberdintasunak. Parte-hartze kulturalak aldaketa edo efektu positiboak eragiten dituen pertsonetan eta gizartean. Aldaketa horiek abantaila dira aldaketak bizi ez dituzten pertsonen gain, batez ere gaitasunaren eta kapital sinbolikoaren klabearen (kultura bitarteko gisa), baina baita ere ongizate sozial eta pertsonaleko klabearen (kultura helburu gisa).

Bigarrenik, *desparekotasunak* betiere sozialak dira, patroik berriak ikusten baitira

jatorri sozialeko talde-ezaugarrien arabera. Hori horrela, ez dira libreki hautatutako gustuak, baizik eta sozialki mugatuak.

Bitartekaritza horretan garrantzia dute ekonomikoak, hezkuntza-arlokoak, osasun-arlokoak, psikologikoak eta abar izan daitezkeen parte-hartze kulturalerako “hesiak” deitutakoek, oztopo horiek talde sozial guztiak modu berean eraginpean hartzen ez dituztela kontuan hartuta.

Parte-hartze kulturalari dagokionez, Euskal Herriko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestaren datuetan oinarritutako azken txostenak ([KEB, 2020](#)) erakutsi zuen parte-hartzeko modua garrantzitsua dela: parte-hartzeko arrazoiak eta modu batera edo bestera egitekoak aldatu egiten dira. Hainbat oztopo daude parte-hartzeko moduetarako eta, horrenbestez, badira modu batzuetan barne hartutako baina beste batzuetan baztertutako profilak.

<sup>6</sup> “Kultura legitimatuaren” gaiari buruzko gogoeta bat Kulturaren Euskal Behatokiaren “[Parte-hartze kulturala Euskal herrian: moduak, arrazoiak eta inpaktuak](#)” (2020) aurkitu daiteke. Praktika kulturalen zabalduetako aitortzak zerikusia du, adibidez, praktika digitalak, aktibo/espresiboak eta asoziazionismoa barnean hartzearekin, baina baita ere praktika jakin batzuei emandako arretarekin, hala nola auzoko gizarte-etxeetara edo kulturaguneetara bertaratzea, ipuinak kontatzea, praktika espiritualak egitea, eskualdeko tradizioei lotutako ekitaldietan parte hartzea, lagunekin denbora partekatzea edo naturatik edo hiritik paseatzea. Ikuspegi honi aplikatutako adibide bat aurkitu daiteke [Bartzelonako Udalaren Behar Kulturalen Inkestan \(2019\)](#).

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

2. irudia. Parte-hartze kulturalako moduak eta modu horiek osatzen dituzten jardueren adibideak.

Parte-hartze hartzailea	
<p>Antzerkira joatea</p> <p>Kontzertu batera edo zinera joatea</p> <p>Museo bat bisitatzea</p> <p>Liburu bat irakurtzea</p> <p>Musika formatu fisikotan (CDa, biniloa...) entzutea</p> <p><b>Parte-hartze fisiko edo analogikoa</b></p>	<p>Liburuak <i>online</i> irakurtzea</p> <p>Filmak, telesailak edo beste ikus-entzunezko batzuk <i>online</i> ikustea</p> <p>Ikuskizun bat <i>online</i> ikustea</p> <p>Musika plataformetan entzutea</p> <p><b>Parte-hartze digitala</b></p>
<p>Antzerkia egitea</p> <p>Koru batean kantatzea</p> <p>Musika-tresna bat jotzea</p> <p><b>Parte-hartze aktiboa</b></p>	<p>Material artistiko propioa edo beste egile, profesional edo amateur batzuen partekatzea</p> <p>Produktu kultural eta artista berriak ezagutzea</p> <p>Informazioa bilatzea eta prestatzea</p>

Parte hartzeko moduei dagokienez, parte-hartze aktiboa edo harkorra ulertu behar dira nagusiki, biak ere dimentsio digitalarekin gurutzatuak (2. irudia). Hurrengo atalean ikusiko denez, hainbat gizarte kategorია espezifikoki erlazionatzen dira parte hartzeko moduekin.

### Adibide gisa: parte-hartze kulturalik ezari lotutako profilak Euskal Herriko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestan

Nahiz eta datuek ezin duten islatu gizarte-bazterketaren profilen heterogeneotasun itzela, Euskal Herriko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestak parte-hartze kulturalaren desparekotasunak parte hartzeko modu desberdinetan nola adierazten diren erakustea ahalbidetzen du.

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokitik egokitua (2020) "[Parte-hartze kulturala Euskal herrian: moduak, arrazoiak eta inpaktuak](#)"



## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

### Parte-hartze hartzaile txikiago bati (fisikoa edo analogikoa) lotutako kategoriak

Gutxiago parte hartzen dute...

- Ikasketa formalen maila txikiagoa duten pertsonak (kapital sinboliko gutxiago).
- Diru-sarrera txikiagoak eta hilabete-amaierara iristeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonak.
- Adin handieneko pertsonak.
- Gizonezkoak.
- Haurtzaroan erregulariki kultura-jarduera harkorretara bertaraten ez ziren pertsonak (kapital sinboliko gutxiago).
- Informazio kultural gutxi duten pertsonak.
- Internet erregulariki erabiltzen ez duten pertsonak (arrakala digitala).
- Pertsona elebakarrek.
- Hiri txikietan edo landa-ingurunean bizi diren pertsonak.
- Pertsonalki kulturaren garrantzia batezbestekoaren azpitik balioesten duten pertsonak.
- Interakzioan eta gizarte-harremanetan oinarritzen diren jarduerak kulturaletara

bideratuagoak dauden pertsonak (gehiago parte hartzen dute autoerrealizaziora eta ezagutzara bideratutako pertsonak).

### Parte-hartze aktibo txikiago bati lotutako kategoriak (praktika artistiko amateurrek egitea)

Gutxiago parte hartzen dute...

- Unibertsitate-titulu bat lortu ez duten pertsonak (kapital sinboliko gutxiago).
- Haurtzaroen praktika artistiko amateurrek egin ez zituzten pertsonak (kapital sinboliko gutxiago).
- Gizonezkoak.
- Europar Batasunetik kanpoko pertsonak.
- Internet erregulariki erabiltzen ez duten pertsonak (arrakala digitala).
- Errutinatik ateratzeko motibazioa duten jarduerak kulturaletan parte hartzera bideratutako pertsonak (sozializatzerak eta autoerrealizatzerak bideratuagoak daudenek gehiago parte hartzen dute).

Gizarte-bazterketako arrazoi ohikoenek intzidentzia txikiagoa dute parte hartzeko modu horretan. Bereziki, modu honetan gai finantzario eta sozioekonomikoek pisua galtzen dutela nabarmentzen da. Izan ere, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak gehiago parte hartzen dute praktika artistiko amateurretan.

### Ingurune digitaleko parte-hartze harkor txikiago bati lotutako kategoriak

Gutxiago parte hartzen dute...

- Internet erregulariki erabiltzen ez duten pertsonak (arrakala digitala). Faktore nagusia da.
- Adin handieneko pertsonak.
- Emakumezkoak.
- Ikasketa-maila txikiagoa duten pertsonak (kapital sinboliko gutxiago).
- Haurtzaroan edozein motatako jarduerak kulturaletan gutxiago parte hartu zuten pertsonak (kapital sinboliko gutxiago).

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

- Euskal Herrian jaiotako pertsonen (kanpoko pertsonen gehiago parte hartzen dute maila digitalean).
- Sozializatzeko motibazioa dela-eta kulturaren parte hartzerara bideratutako pertsonen (autoerrealizatzera bideratutako pertsonen gehiago parte hartzen dute).
- Gutxien informatutako pertsonen.

### Ingurune digitaleko praktika aktiboen egikaritze txikiago bati lotutako kategoriak

Gutxiago parte hartzen dute...

- Adin handieneko pertsonen. Kasu honetan faktore nagusia ez da Interneten erabilera erregularra, baizik eta adina.
- Internet erregularri erabiltzen ez duten pertsonen (arrakala digitala).
- Emakumezkoek.


Ikasketa-maila eta maila ekonomikoa ez dira esanguratsuak maila honetan, ezen zertxobait gehiago parte hartzen dute lehen mailako ikasketen gehieneko maila duten pertsonen eta ekonomikoki okerren kokatutako pertsonen.

## 3.3. Nola sartu kultura bazterketaren eredu teorikoan?

Gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko gizartearen bizi- eta ongizate-mailetan eragiten duten ekintzak dira garrantzitsuak. Bereziki zuzeneko ongizatearen klabean, baina baita zeharka bizi-mailan ere, intzidentzia-potentziala du kulturak. Parte-hartze kulturalak gizarte-bazterketaren aurka egin dezake haren hegala esanguratsuenetako batzuetatik ekinez.

Hauxe da kultura gizarte-bazterketaren aurkako borrokan helburu eraldatzailearekin

**3. irudia.** Holdenen kulturaren balio publikoaren triangelua.



sartzeko oinarria: bere osagarritasuna pertsonen ongizatea hobetzera bideratutako ekintza publikoen multzoarekiko, testuinguru horretan kulturak egin dezakeen ekarpen estrategikotik abiatuta.

Horrela, kulturaren beraren balio publikoan kokatzen da normalean gizarte-bazterketaren eta kulturaren arteko erlazioa. Kulturaren balio publikoaren kontzeptualizazio klasikoarekin jarraituz, J Holden-en triangeluari erantzunez (2004)<sup>7</sup>, maila bat baino gehiagotan du balioa kulturak gizarte-bazterketarekiko:

<sup>7</sup> Kulturaren Euskal Behatokiak berak egin zuen txosten bat gai horren inguruan 2018an: "Kulturaren balio publikoa".

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

Balio hauek beste ikuspuntu batetik ere sailkatu eta aurkeztu daitezke ([McCarthy et al, 2004](#)) hobeto ulertzeko, hala nola:

- Onura pribatuak, sentitutako plazera edo konpetentzia pertsonalen hobekuntza, esaterako.
- Onura pribatuak translazio publiko batekin: osasunean, ezagutzaren hobekuntzan...
- Onura publiko huts-hutsak, gizarte-kohesioa edo itzulkin ekonomikoa, esaterako.

Kontuan izan behar da onuren aurreko sailkapen hori ez dela Holdenen triangeluaren beste etiketa batzuetara egindako translazio sinple bat, eta, aitzitik, sakondu egiten du: berezkoak (esperimentatutako plazera) zein instrumentalak (konpetentzien hobekuntza) egon daitezke, edo berezko dimentsio bat ere duten onura publiko huts-hutsak, hala nola lotura sozialak sortzea edo sendotzea, emozionalki esperimentatzen direnak (McCarthy et al, 2004).

Edozein kasutan ere, ongi uztartzearen gakoa zera da, kultura gizarte-inklusioko eta gizarte-kohesioeko elementua dela. Kulturen ez parte hartzea faktore eskusogeno bihurtu daiteke pertsonentzat.

Arestian adierazitako FOESSA ereduko gizarte-bazterketaren hiru ardatzei (ardatz ekonomikoa, ardatz politikoa eta herritarrak, eta ardatz sozial-erlazionala), parte-hartze kulturalak hainbat motatako erlazioak ditu guztiekin ere.

Kultura osotasunaren zati izan daiteke gizarte-inklusioren kontzepzioan herritar klabeen, ezen berez gizarte-bazterketako eremu bat izan baitaiteke, baina gainera harremana du ardatz ekonomikoarekin (enpleguaren dimentsioaren eta enplegarritasunari lotuta duen potentzialaren bitartez) eta ardatz sozial-erlazionalarekin (isolamendu sozialaren dimentsioaren eta lotura sozialak sortzeko duen potentzialaren bitartez).

Kulturen balioari eta haren onurei buruzko gogoeta lasai batek kulturen beraren ekarpen berezienak erakutsi ditzake. Ez dira onura bakarrak, baina bai modu bereizgarrienean egikaritzen dituenak, hau da, potentzial bereko jarduera gutxiago dituzten horiek. Honako hauekin du zerikusia

# 1

**Kultura elkartzeko eta kolaboratzeko bitarteko gisa,** honako hauek produzituz:

— **Kidetzatutako sentimenduak**

(partekatutako identitatearen aukeraketa librea: nazionala, tokikoa edo etxekoa, erlijiosoa, generokoa... eta horren garapena).

— **Kapital soziala** (loturak, sare sozialak).

— **Dibertsitatearekiko tolerantzia** (dibertsitatea errespetatzea, onartzea eta estimatzea; aurreiritziak eta estereotipoak murriztea).

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

# 2

**Kultura adierazpide gisa,**  
honako hauek produzituz:

— **Parte-hartze komunitarioa, elkarrizketa eta eztabaida**  
(ahalduntzea, konfiantza sozial eta instituzionala).

— **Gaikuntza pertsonala**  
konfiantzan, autoestimuan, komunikazio-abilezietan, abilezia sozialetan eta abarretan gauzatuta (enplegarritasunaren mesedetan, modu nabarmenean).

Kulturaren ekarpen berezien interesa zera da, ez dituztela –edo gutxitu egiten dituztela– aukera-kostuari lotutako dilemak, ez baitute efektu horiek modu berean indartu ahalko dituen arerio baliokiderik.

Aurrekotik, “herritartasun kulturalaren” eta “eskubide kulturalen” adierazitako ideiak nabarmentzen dira modu interesgarrian. Parte-hartze sozialeko beste esparru

bat dugu herritartasun kulturala, politika, ekonomia eta gizartea bera osorik hartuta ere esparru bat diren bezalaxe. Esfera sozial espezifikoko horretan dauden pertsonen eskubide eta betebeharren aitortza sozial eta juridikoari egiten dio erreferentzia: kultura. Horregatik, eskubide kulturalen ikuspegiarekin zerikusia du kulturaren eta gizarte-bazterketaren arteko artikulazioak, eta kulturarako 21 Agendan eta Garapen Jasangarrirako Helburuetan sartzen da (**KEB, 2019**).


### **Kulturaren potentzial espezifikoaren ebidentzia empirikoa gizarte-bazterketari dagokionez**

KEBen txostenak berak (**2020**) erakusten duenez, oro har, kulturaren batezbestekoaren gainera parte hartzen dutenek adierazten dute gogobetago daudela bizitzarekin (ongizate pertsonala), gizarte-harreman gehiago ezartzen dituztela (kapital soziala), eta sentimendu positibo gehiago dituztela dibertsitate sozial eta kulturalari buruz (tolerantzia soziala).


## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

**6. grafikoa.** Kultura eta ongizatea (bizitzarekiko gogobetetzea). Gogobetetze-batezbestekoarekiko desbiderapena parte hartzeko moduaren arabera batezbestekoaren gaitetik edo behetik dagoen parte-hartze kulturala egitearen mende.




**7. grafikoa.** Kultura eta gizarte-tolerantzia. Sentimendu negatiboen proportzio global edo batezbestekoaren desbiderapena moduen arabera batezbestekoaren gaitetik edo azpitik dagoen parte-hartze kulturalako taldearen mende.



## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

8. grafikoa. Kultura eta gizarte-lotura berriak. Jarduera kulturalen bidez inoiz edo ia inoiz gizarte-harremanak ezarri ez dituzten pertsonen proportzio global edo batezbestekoaren desbiderapena, moduen arabera, batezbestekoaren gaintik edo azpitik dagoen parte-hartze kulturalako taldearen arabera.



Halere, badira desberdinak edo espezifikoagoak diren beste alderdi batzuk non parte-hartze kulturalak alde bat eragiten duen. Kontuan izan behar da aurreko emaitzak, sarritan gertatzen den bezala, kultura ikusitakoaren arrazoia dela zorrotasunez zehazten ez duten korrelazioak direla soilik, arrazoi horrengatik izan daitekeela dirudien arren.

Sakonduz, kulturaren gaitasunari buruzko ebidentzia nabarmentzen da gizarte-kohesioaren oinarritzko bi aldagaietan: *bondinga* (loturak sortzeko klabeak, identitatearekin gehiago lotutakoa) eta *bridginga* (zubiak sortzen dituen faktore gisa, interrelazioarekin lotutakoa). *Bridging* aldagaiaren erreferentzia gisa zenbaitetan *linking* aldagaiaren erreferentzia egiten da erabakiak hartzeko prozesuan taldeek eta pertsonen eraginarekin lotutako dimentsio gisa (horrenbestez, gobernantzari lotuagoa dagoen begirada bat, Holdenen triangeluari jarraikiz balio instituzionalaren ideari lotuagoa).

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

Ondoren, Europako txostenen azkenaldiko adibide batzuk biltzen dira, "[Brainstorming report. Social inclusion: partnering with other sectors](#)" (Voices of Culture, 2018), "[From social inclusion to social cohesion. The role of cultural policy](#)" (Europako Batzordea, 2019) eta "[Culture and democracy, the evidence](#)" (Europako Batzordea 2023). Lehenik, biztanleriari gagozkiola, nabarmentzekoa da jarduera kulturelek enpatiako eta tolerantziako jarduerak eragiten dituztela dibertsitate sozialarekiko. Talde txikietan, musikako eta kantuko proiektu espezifikoetan kasu honetan, jarduerak parte-hartzaileen portaera kooperatiboa handitzen laguntzen duela aipatzen da. Begirada orokorrago batetik ikusita, Polzella DJ-ren eta Forbis J-ren azterlanek ([2013](#)), besteak beste, erakusten dute kontzertuetara bertaratzea lotua dagoela hauteskunde batzuetan bozkatzeko, boluntariora edo dohaintzak egiteko, eta jarduera komunitarioetan parte hartzeko probabilitate handiagoarekin. Hori bera errepikatzen dute egile horiek ([Polzella DJ & Forbis J, 2017](#)) beste jarduera batzuetarako: antzerki-lanetara, dantza-

lanetara, arte-erakusketetara eta hainbat kontzertu motatara bertaratzeko. Ekitaldi horien ezaugarri espezifikoetara lotzen duten ondorio bat: identitate partekatua, gustuaren espresioa, esperientziaren multisentsorialitatea, errituala...

Kidetzaren sozialeko sentimendua jarduera kulturalaren output bat ere bada, ondareko proiektuetan zein jaialdi kulturaletan ikusten den bezala.

Kulturako eta gizarte-bazterketako klabeen, parte-hartzaileentzat onuragarriak izan diren izaera espezifiko proiektu ugari daude, presoen gizarteratzearekin hasi eta minorien eta immigratzaileen inklusioarekin buka, emakumezkoak, errenta txikiko komunitateak, gazteen komunitateak eta abar ahalduentzeko prozesuak ere barnean hartuta.

Kulturak interkonektatzeko duen gaitasunari begiratuta, parte-hartze kulturala garrantzitsua dela ikusi da gorrotoa eta gorrotoari lotutako jarduerak eta delituak murrizteko. Era berean, jarduera kulturalak protagonismoa hartzen du nondik norako eta jatorri sozial desberdineko jendea batzeko eta konektatzeko (adinaren,

generoaren, etniaren, lan-estatusaren eta abarren arabera). Kulturak azken batean guneak sortzen ditu elkartzeko, elkarri eragiteko eta baita sinkronizatzeko modu bat ere. Gaitasun hori bereziki ongi gauzatuta dago gatazkak konpontzeko, adiskidetzeko eta komunitateak berreraikitzeke proiektuetan, non arteek eta kulturak prozesua modu eraginkorragoan lantzea ahalbidetzen duten, kolaborazio kreatiboa, autoespresioa eta elkar-ulertzea erraztuta.

Loturak sortzeko beste dimentsio batek erabakiak hartzearekin eta ordezkagarritasunarekin lotuagoak dauden alderdiekin du zerikusia azkenik. Gobernantza partizipatiboari buruzko zatia da, eta pertsonen artean eta pertsona horien eta instituzio eta erakundeen artean loturak ezartzen dira. Hainbat azterlanek, hala nola Chicagon bi proiektu artistiko ebaluatzeko egindakoak ([Engh R et al., 2021](#)), erakusten dute komunitatea inplikatzeko jarduera kulturalak baliatzeak handitu egin zuela erabakiak hartzeko prozesuaren zati izatearen pertzepzioa, bereziki kolektibo kalteberenen artean.

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

Identitateen eta ordezkagarritasun kulturalaren klabeak, nabarmentzekoa da, besteak beste, Montrealgo proiektua Kanadan eta lehenengo nazioei egiten dien aitortza, inklusibitatea eta dibertsitatearen tratamendua hobetuta ([BOP Consulting, 2018](#)).

Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea halaber osasun-egoera desberdinak dituzten pertsonentzako onurak, egoera horiek bazterketa-faktore garrantzitsua izan baitaitezke halaber, eta kultura jarduera hori gainditzeko bitarteko bat. Horri dagokionez, Kulturaren Euskal Behatokiak berak egin du kulturari eta osasunari buruzko azterlan espezifikoa bat ([KEB, 2022](#)), non hainbat onura nabarmentzen diren, hala nola komunikazioaren hobekuntza desgaitasunak dituzten pertsonetan, antsietatearen eta beldurraren murrizketa edo osasun-nahasmendu inpaktu emozionalarena, konfiantzaren eta autoestimua hobekuntza, indartze fisikoa (dantza bezalako jarduerak)...

## Ebidentzia enpirikoaren irakurketa kritikoa

Sortutako ebidentziaren zati handi batek arazo espezifikoei erantzuteko diseinatutako eta exekutututako esku-hartzeekin du zerikusia, eta horixe da ikusitako ebidentziaren mugaketa nagusia.

Horrek esan nahi du zaila dela jarduera kultural guztirako orokortzea.

Egokitzeko eta problema espezifikoetara bideratzeko gaitasun hori maila sozialean balio bat bada ere, balorazio kritiko bat behar du, aldiz, ebidentzia zientifikoko eta efektuen berrikuspeneko klabeak. Izan ere, egun dauden desparekotasunekin du zerikusia ebidentzia nagusiak, eta ez hainbeste kulturaren onura sozialekin. Oraindik ere aurretik tarte luzea duen bidea da, makro-mailan ebidentzia sortzearena, hain zuzen ere.

Ikusitako ebidentziaren zati handi baten espezifikotasunak bere efektuen iraupenaren mugaketa ere erakusten du: noiz arte irauten duten emaitzek denboran, zenbateraino diren efektuak sakonak eta iraunkorrak.

Ildo horretan, proiektuen espezifikotasunaren ahulezia bat zera da, talde profesionalak kendu ondoren oso zaila dela nahi den dinamikari eustea baliabide espezifikoko horiek gabe.

Horrek, bestalde, kulturaren balio publikoa sortzen dela ziurtatzeko baliabideak bideratzearen garrantziaz hitz egiten digu. Ildo horretan, ezin da errealitatean eragin (eta, horrenbestez, ezta ebidentzia sortu ere) baliabideak bideratu gabe.



# 4. Lan-eremuaren klabeak

## Pertsonetan eta sailen arteko lankidetzan oinarritutako hurbilketa

Kulturak osasunarekin eta hezkuntzarekin dituen intersekzioei buruzko jarduketek normalki lankidetzara (beste erakunde eta sail batzuekin) bideratuko hurbilketa publikoak izateko ezaugarri erkidea dute. Bestalde, kulturak gizarte-politikarekin duen intersekzioa gizarte-bazterketako klabean pertsonen bideratutako hurbilketa bat da batez ere (Europako Batzordea, 2019).

Hori gorabehera, garrantzitsua da hori bermatuko duten kolaborazio instituzional posibleak planteatzea, kulturaren ekarpen hori indartzeko. Horrela, eremuko lana zeharkakoa da berez, eta lan eraginkorragoa egiteko administrazio-mugak gainditzeko premia inplikatzeko du horrek.

## Proiektuak eta neurriak fokalizazioaren eta unibertsaltasunaren artean

Horrela, kulturak betiere onura sozialak gizarte osorako izan baditzake ere (kultura demokrazia eta gizarte-kohesioa sendotzeko; Europako Batzordea, 2023), gizarte-bazterketarekiko intersekzio den aldetik zentzua dauka pertsonetan zentratutako hurbilketa gisa eta, zehazki, gizarte-bazterketako egoeretan edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak kontuan hartuz gero.

Horrek esan nahi du, batetik, baztertutako kolektibo jakin batzuetara soilik bideratutako neurri espezifikoak diseinatu behar direla eta, bestetik, kolektibo horiei lekua egiteko dauden parte-hartze kulturalako neurriak

birpentsatu behar direla, hau da, fokalizazioko zein unibertsaltasuneko helburuekin jardun.

Illo horretan, desgaitasunei lotutako gizarte-bazterketaren azpieremutik espezifikoki datozen “guztientzako diseinuaren” eta “irisgarritasun unibertsalaren” ideien adibidea gai da begirada unibertsalizatzailea ere barnean hartzen duen ikuspen konbinatu baten zentzua eta erabilgarritasuna islatzeko. Horrelako etiketek eduki kulturaletarako

sarbideak erraztera bideratzen diren bitartekaritza eta dinamizazio artistiko eta kulturalako ekintzak



Flandriako **UitPAS** aplikazioak karnetaren jabe diren pertsona guztientzako onurak diru-sarrera gutxi dituzten pertsonentzako abantaila espezifikoekin konbinatzen ditu.

imajinatzea ere ahalbidetzen dute, desgaitasunekin lotutakoez bestelako hesiak ere gaindituta.

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

### Hirugarren sektorearen garrantzia

Pertsonei zuzenean bideratutako lan-ikuspegi honek hirugarren sektorea kulturaren eta gizarte-bazterketaren eremuan zati garrantzitsu izatea eragiten du. Hirugarren sektore soziala agente oso garrantzitsua da bazterketaren eremuan. Izan ere, lege-garapen espezifiko du Euskadik (6/2016 Legea). Hirugarren sektore kulturala sektore soziologikoki oso garrantzitsua da, sektorearen formalizazio-maila txikiagoa gorabehera ([KEB, 2021](#)).

Kulturaren eta gizarte-bazterketaren arteko intersekzioak, haien helburuen izaera kontuan izanda, hirugarren sektorea bera da proiektuak garatzen dituzten agenteen zati garrantzitsu bat, eta ekonomia sozial eta solidarioa nabarmentzen da bere alderdi profesionalean. Agenteen multzoak inpaktu berezia izateko potentziala du, gizarte-aldaketako helburura oso lotuta dagoen borondate batekin funtzionatzen duenez.



Horren eta Euskadin dauden beste zenbait proiekturen erakusgarri da Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak landutako "[Artea inklusio eta partaidetza sozialerako](#)" (2012) txostena.

Bestalde, [Kultura Komunitarioko Gune eta Agenteen Sarea](#) ere hirugarren sektore horren garrantziaren beste adibide egoki bat da, zeharkako lanerako eta gizarte-aldaketarako lan-borondate argiarekin artetik eta kulturatik. Helburu horietako bat "Eskubide kulturalak defendatzea eta gizarte-desparekotasunen aurka borrokatzea" da hitzez hitz.

### Administrazio publikoaren rol esanguratsua

Arrazoi horrengatik berarengatik, intersekzio honetan administrazio publikoaren berezko proiektuak ere garrantzitsuak direla ulertu beharko da, normalean inklusioko programa eta ekintza espezifikoak garatzen dituzten ekipamendu kulturalen bitartez bideratuak (irisgarritasun unibertsalerako egokitzapena, deskontuak eta kolaborazioak, bitartekaritza-proiektuak...).



2020an, adibidez, [museoetako irisgarritasun-neurrien azterlan diagnostikobat](#) egin zen Euskadin, gai horretan puntakoa den sektoreetako batean. 10tik 8ko baino gehiagok irisgarritasun-neurriak sartu dituztela adierazi zuen.

Baina administrazioa ez da soilik garrantzitsua zerbitzu eta programa horien zuzeneko hornitzaile bezala, baita arestian nabarmendutako hirugarren sektorea deitutakoaren laguntza gisa ere (dirulaguntzen eta beste politika batzuen bidez, hala nola guneak lagatzea, aholkularitza...).

Ez da soilik garrantzitsua zentzu praktikoago horretan, baita estrategikoan ere: lidergoko agente bezala, edozein motatako baliabideak batzeko eta mobilizatzeko, eta jarduteko estrategia globalak markatzeko gaitasunarekin.

Zentzu horretan, gizarte-bazterketako kontzeptuko politika edo strategiak kate-maila ahula dira eremuaren barruan. Talde

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

eta proiektu txiki eta fokalizatuen bidez garatzen da normalean lana, eta begirada global eta zeharkako begirada gehiago falta da. Desgaitasun-klabeen irisgarritasunari lotutako lana da salbuespen bakarra, baina, azaldu denez, egoera horietatik haratago doa gizarte-bazterketa.

## Gizarte-inklusioa gizarte-berrikuntzako eremu gisa

Gizarte-berrikuntzari oso lotuta dagoen eremutat hartu behar da kulturaren eta gizarte-inklusioaren eremua. Tokiko arazoak bideratzeko esku-hartze oso espezifikoak eragiten dituen intersekzio bat da, betiere parte-hartze kultural aktibo eta kontziente baten bidez, zenbaitetan berria pertsonentzat. Ildo horretan, dinamizazioa, bitartekaritza edo kultura komunitarioa terminoek, bestek beste, protagonismoa hartzen dute eremu horretan. Izan ere, partaidetza kulturalak bere formetako



Euskadin badago **Ekintzailtzako eta gizarte-berrikuntzako** programa baten bidez inpaktu sozial handiko proiektu berritzaileak sustatzeko programa espezifiko bat, eta inklusioa da lehentasunezko arloetako bat.

bakoitzean berezko duen potentziala ustiatuko duen lan espezifiko baten bidez soilik lortu ahalko dira kasu bakoitzean aurreikusitako helburuak. Horrek berriz ere itzultzen gaitu lehen aipatutako ideia batera, hau da, kulturak ez dituela beti berez efektu sozial positiboak eragiten, eta, aitzitik, balizko zailtasunetatik abiatu eta zailtasun horiek neutralizatu eta alderantzikatuko dituen ekimenak diseinatu behar direla.

## Malgutasuna eta hurbiltasuna: egokitze gaitasuna, inpaktu-potentziala

Proiektuen espezifikotasun hori, arestian adierazi denez, muga bat izan liteke parte-hartze kulturalaren ebidentziak orokortzeari dagokionez, baina potentzial bat ere

izan liteke aldi berean: artearen eta kulturaren bidez posible da arazo sozial konplexuei ekitea, helburu-arazoaren

soluzio objektiboago bat inplikatzeko duen egokitzapen bat ahalbidetuz.

Ingurune, kolektibo edo arazo jakin batzuetan fokalizatzen den jardueraren zatirako da hori baliagarria. Errealitatearen oso hurbileko ezagutza duten agenteek egindako errealitatearen beraren irakurketei zor zaizkie proiektu horiek, eta sarritan hitza ematen diete inplikaturako pertsonari. Pertsonen protagonismo horrek eta begiraden baturak aberastu egiten ditu proposaturako soluzioak, eta kreatiboak eta neurri egindakoak izan ohi dira. Inpaktu-potentzial handiagoa ahalbidetzen du horrek.



Birminghamgo proposamen bat da **“Culture on your doorstep”** proposamena parte-hartze kulturala pertsona guztien eskura jartzeko, betiere hiriko guneeetan daude desperakotasunez jabetuta.

Erronka, zentzu horretan, inpaktu-gaitasun hori izango duen jarduera kultural bat izatea izango litzateke, oro har eta ez soilik proiektu espezifikoetan.

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

### Figura eta konpetentzia profesional espezifikoak

Artearen eta ondarearen inpaktu-gaitasunaren mugetako bat faktore eskusogeno gisa jarduten duten edozein motatako hesiak dira. Haien artean, abstraktuenak edo sinbolikoenak obrekin harreman bat ezartzeko artearen kodeak eta haren espresioak deszifratzeko beharrezkoa den abileziarekin dute zerikusia. Esanahiak aztertzea eta argitzea, gogoeta sakonak sustatzea edo prozesu sortzaile bat dinamizatzea pertsoneri lagundu ahal zaien esparru bat da. Hezkuntzarekin edo pedagogiarekin estu lotutako eremu bat da, eta hezitzaileen eta giden figura horiek hartzen dute garrantzia, baita dinamizatzaileenak eta bitartekariarenak ere.

dukiak pertsoneri "hurbiltzera" bideratutako irudiak dira. "Bideratzaileak" dira hainbat modutan, beharrezko ezagutza artistikoak eta estrategien eta tresnen barietate zabala dutenak (disziplina artistikoak eta haien produktuak, eta pertsonen parte



Chillida Leku museoko "**Lotura**" programa da gizarte-inklusiari lotutako programa bati lotutako profilen dibertsitatearen eta espezializazioaren erakusgarri egokia, hemen azpimarratzen den bezala 2023an inplikaturako **tailerreko parte-hartzaileen profila** deskribatuz.

Arteari bitarteko eta prozesu gisa begiratzearen erakusgarri ere bada, helburuetako bat pertsonen parte-hartze aktibo eta espresiboa izanik.

hartzeko eta inplikatze modu posibleak bezain zabala). Profil horiek arduratzen dira programak eta ekintzak diseinatzeaz edota eremuan egikaritzeaz, bere funtzioak egikaritzea ahalbidetzen duten konpetentzia espezifikoekin.

### Arte bitarteko gisa eta prozesu gisa

Figura profesional horiek esanguratsuak dira kulturaren eta bazterketaren eremuan arteak bitarteko gisa eta ez helburu gisa hartzen duelako garrantzia, egoera jakin batzuk lantzeko eta arazo jakin batzuk bideratzeko balioa duen zentzuan.

Aldi berean, horrela, arteak sarritan hartzen du balioa bereziki prozesu gisa, eta ez produktu gisa. Ondoriozko obra ez da prozesua eta horrek dakarrena baino garrantzitsuagoa. Kulturaren eta bazterketaren eremuan garrantzitsua da pertsonen parte-hartze aktibo eta kreatiboa, haien zuzeneko inplikazioa.

Espresio artistikorako zein erabakietan parte hartzeko baliagarria da hori (pertsonak arte-sortzaile gisa edo kudeatzaile gisa). Bi kasuetan ere pertsonaren rola aktiboa da eta prozesu osoan lagunduko duten profesionalak behar dira.

## 5. Laburpena eta ondorioa

Gizartean parte-hartze falta dagoela adierazten duten prozesu eta egoerak hartzen ditu gizarte-bazterketak (baita politikaren esparruan, komunitatean, ekonomian eta abar ere). Maila praktikoan, horrenbestez, gizartearen marjinetara baztertuta dauden kolektiboak hartzen ditu. Horrek esan nahi du ezin dituztela aukerak, gaitasunak edota baliabideak baliatu beren eskubideez erabat gozatzeko. Pobrezia-arrazoiengatik bazterketa-egoerekin hasi eta diskriminazio sozialarengatik ere barnean hartzen ditu gizarte-bazterketak. Horrenbestez, errealitate oso heterogeneoa osatzen du eta sarritan ikusezina.

Ildo horretan, gure gizartean fenomeno estruktural bat da gizarte-bazterketa: horrela erakusten dute Euskadiko datu historikoek berek (Europako testuinguru orokorrean gertatzen den bezala eskualdeen arabera aldatzen diren mailekin, baina betiere modu esanguratsuan irauten dute).

Gizarte-bazterketaren testuinguruan, arazo eta soluzio potentziala da aldi berean parte-hartze kulturala. Gizarte-bazterketako eremu bat da parte-hartze kulturala, beste esfera bat, esfera ekonomikoa edo politikoa bezalaxe. Zabal aztertutako fenomeno dira parte-hartze kulturalako desberdintasunak, eta Euskadiren testuinguruan Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestaren erreferentzia hartu daiteke kontuan.

Baina parte-hartze kulturala palanka bat ere izan daiteke gizarte-bazterketako egoera jakin batzuk gainditzeko. Bazterketa fenomeno multidimentsionala denez, kultura ezin da ikusi berez nahikoa den soluzio bat bezala, baina bai, ordea, beharrezko zati bezala.

Parte-hartze kulturalak potentzial espezifiko bat, bereizi bat, dauka, eta zaila da potentzial horretan baliokide funtzionalak aurkitzea. Kultura elkartzeko eta kolaboratzeko bitartekoa da, alde batetik,

eta kultura adierazpenerako bitartekoa da, bestetik. Ezaugarri horiek potentziala ematen diote kide-tza-sentimenduak, kapital soziala, dibertsitatearekiko tolerantzia, parte-hartze komunitarioa eta gaikuntza-pertsonala sortzeko. Gizarte-bazterketako egoerei aurre egitea eta egoera horiek gainditzea, eta gizarte-inklusio eta gizarte-kohesioko prozesuak indartzea ahalbidetzen duten onurak.

Ekintza kulturalaren potentzialen irakurketa kritiko bat egitea beharrezkoa bada ere (kontuan izanda sarritan sortzen diren onurak oso lokalizatuak eta onura horiek sortzera bideratutako diseinu espezifikoaren mendeko direla), txosten honek 8 gako ere nabarmendu ditu proiektuak eta politikak garatzeko parte-hartze kulturalaren eta gizarte-bazterketaren harremanean:

## Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

Harremanaren kontzeptualizazioa eta lan-esperientzien identifikazioa

<b>1</b>	<b>Pertsonetan eta sailen arteko lankidetzan oinarritutako hurbilketa</b>	Aurreko guztiak kontuan izanda, kulturak gizarte-bazterketarekin sortzen duen intersekzioan sakontzea politika kulturalen gero eta garrantzi handiagoko esparru bat izango da. EBk gizarte-bazterketan duen interes estrategikoak, baita eskubide kulturalen perspektibak izan duen gorakadak ere, eztabaiden erdian jartzen dute gaia.
<b>2</b>	<b>Proiektuak eta neurriak fokalizazioaren eta unibertsaltasunaren artean</b>	
<b>3</b>	<b>Hirugarren sektorearen garrantzia</b>	
<b>4</b>	<b>Administrazio publikoaren rol esanguratsua</b>	Lan hau burutzeko funtsezkoa da fenomenoaren dibertsitatea eta haren sustrai estrukturalak ulertzea, eta gako horiek guztiak eta proiektu eta politiken diseinuan dituzten ondorioak kontuan hartu behar dira.
<b>5</b>	<b>Gizarte-inklusioa gizarte-berrikuntzako eremu gisa</b>	
<b>6</b>	<b>Malgutasuna eta hurbiltasuna: egokitzeko gaitasuna, inpaktupotentziala</b>	
<b>7</b>	<b>Figura eta kompetentzia profesional espezifikoak</b>	
<b>8</b>	<b>Artea bitarteko gisa eta prozesu gisa</b>	

# Erreferentziako bibliografia

Ayala L, Laparra M, eta Gregorio C (koord.) (2022). "[Gizarte-kohesioaren bilakaera eta Covid 19aren ondorioak Espainian](#)". Azterlanen bilduma, 50, FOESSA Fundazioa – Cáritas Española Editores, Madril.

BOP Consulting (2018) "[World Cities Culture Report 2018](#)".

Europako Kontseilua (2004) "[Joint Report by the Commission and the Council of Social Inclusion](#)".

Europako Batzordea (2019) "[From social inclusión to social cohesión. The role of culture policy](#)", Europako Batzordea.

Europako Batzordea (2023) "[Culture and the democracy: the evidence](#)", Europako Batzordea.

Engl R et al (2021) "[WE-making: How arts & culture unite people to work toward community well-being](#)". Easton, PA: Metris Arts Consulting.

Holden J (2004) "[Capturing Cultural Value](#)", Demos: London.

NBE (2016) "[Leaving no one behind: the imperative of inclusive development](#)", Nazio Batuak.

NBE (2018) "[Promoting inclusion through social protection](#)", Nazio Batuak.

NBE (2022) "[Operationalizing Leaving No One Behind](#)", Nazio Batuak – Garapen Jasangarriko Taldea 2022.

KEB (2018) "[Kulturaren balio publikoa](#)", Kulturaren Euskal Behatokia – Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Eusko Jaurlaritza).

KEB (2019) “Eskubide kulturalak”, Kulturaren Euskal Behatokia – Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Eusko Jaurlaritza).

KEB (2020) “[Parte-hartze kulturala Euskal herrian: moduak, arrazoiak eta inpaktuak](#)”, Kulturaren Euskal Behatokia – Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Eusko Jaurlaritza).

KEB (2021) “[Euskadin hirugarren sektore kulturala pentsatzeko gakoak](#)”, Kulturaren Euskal Behatokia – Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Eusko Jaurlaritza).

KEB (2022) “[Kultura eta osasuna](#)”, Kulturaren Euskal Behatokia – Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Eusko Jaurlaritza).

McCarthy et al (2004) “[Gifts of the Muse: Reframing the Debate About the Benefits of the Arts](#)”, RAND Corporation.

Polzella DJ eta Forbis J (2013) “[Pro-social and economic indications of participation in the arts](#)”, Washington DC: National Endowment for the Arts.

Polzella eta Forbis (2017) “[Relationships Between Different Types and Modes of Arts-Related Experiences, Motivation, and Civic Engagement](#)”, Washington DC: National Endowment for the Arts.

Suppa N (2023) “[Pobrezia multidimentsionalaren dinamika Espainian eta Europako beste herrialde batzuetan](#)”, “la Caixa” Fundazioaren Behatoki Soziala.

Vocies of Culture (2018) “[Brainstorming report. Social inclusión: partnering with other sectors](#)”, Europako Batzordea.





Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

---

## Kultura gizarte- bazterketaren aurrean

Harremanaren  
kontzeptualizazioa eta lan-  
esperientzien identifikazioa

---



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

